

EUSKALZALEEN-BILZARRA

1912^{eko} BIL-ALDIA.

Euskalzaleen-Bilzarrak, aurthengo bere bil-aldia zuen Donaphaleun, buruillaren 28^{an}. Hamar orenen ondoko, ehun eta berrogoi bat bilzar-lagun, bilduak aurkhitu dire *Nere Jaun Pierre Gueraçague* hirian notari eta hiriko hauzaphez denak onhetsi zioten barnedegi ederrean. Jaun hauzaphezak euskaraz egin dio bilkhurari ongi-ethorria. Atsegin handiz bilkhurak aditu du, eta esku zarta handiz saristatu haren hitza, bilkhurarentzat amulsu bezain, Euskal-mintzairarentzat khartsua.

Jaun Georges Lacombe, Buru lehenak, nihork guti edo batek ere, bardint ez lezaken jakintsun-euskara batez, bihurtu diozka bilkhuraren izenean eskerrak, eta bere aldian esku zarta handiz saristatua izaturik, adiarazi du bilzar lana hasterat zohala.

Berak aiphu ditu lehenik, bilkhuran ezin aurkhitzeaz nahigabe dutenak, bai eta ere erasaten du laur hogoi eta hamar bat euskalzale Laguntasunerat sartzea galdetzen dutenak badirela, onhesten dire guziak.

Orhoitzapen amulsu bat emana zaiote gero, Jainkoak aurthen bereganat deithu dituen hirur bilzar-laguneri. Aiphu da lehembizikorik *Charles Becas*, Bidarteko erretor zena. Ethorkiz Ainhoa-rra beraz Laburdiko mintzaira berezienaren ithurburutik zen. Lakheta zuen euskarazko neurthitz bichitarik moldatzea, hala nola « Mochkorraren igande arratsa ». Moldatu zituen ere kobla batzu, bere aphez lagunen, barnerako eta kaporako, itchura agerienari ezin hobeki zohazkonak ; bai eta ere, Andre-Dona-Mariaren goresgarri, kantika bozkariozko bat, *Schola Cantorum* Donibane Lohitzungoak, bere Meza miretsien ondotik errepikatzen duena. — Aiphu da bigarrenekorik *Ovide d'Arthes-Lassalle*, Prefeturan Kontseilari izatua. Laguntasunari haste hastetik eman zioen izena, eta hel-arazi bere emaitza. Geroztik, bere tokiaren gureganikako urruntasunak, adinak ere behar bada, eta emaitzen sar-arazteko

gure moldegaizkeriak, ez zuten, ez gutartean aurkhitzen, ez bertze emaitzarik egiten lagundu—Aiphu da azkenekotz *Thèophile Barran*, notari ondoa. Bilzar-lagun khartsuenetarik zen, bilkhur-etan, bai urrunetan ere aurkhitzeari, huts egiten ez zakiena. Hura ginduen, asmu hau izatu zuen lagun bakharra : Ez othe gindukeen *Hilabetekari* bat gutartean moldatu, Euskararen argitasun zembeit, eta haren urhats on edo gaichtoari lohazken gerthakariak, ezagut-arazi zituzkeena. Barran zenak, bere guthun edo letrak, euskaraz iskribatzen zerauzkun, eta daukagu berri ehahar alegeragarrien kondatzeko, bere parerik ez zuela. — Jainkoak bere lorian dituela, horiek ziren, iragan urthe horrek ereman dauzkigun lagunak.

Hortarik harat, irakurtu dire eta onhartuak izatu, jazko bilkhurari eta har-emanari behatzen ziren chehetasunak.

Buru lehenak orduan aiphatzen du gauza bat, duela bi urthe bilzar-lagun batek bilkhurari begien aintzinerat eman zioena, iragan urtheko bilkhuran erreberitu zena, eta geroztik ezin bururatuz egotua : zerik eta, Euskarari chede diogun iraupenaren emateko, galdetu eta ardietsi behar gindukela, *Euskara* izan dadien irakatsia, Semenariotan, eta gure herrietako haurren eskoletan. — Bilkhura guziaren ordu hartako atzartasunak, eta bilzar-lagun berezienetarik zembeiten eta goretsienen ere argudioak, argudio funts handitakoak, ezagutzerat eman dute, zembat zen aiphamen hori bilkhura guziaren goarakoa. Eztabada den amul sukiena luzez atchiki duen hortarik, alchatu dire hirur gauza : *Lehembizikoa*, irakaspen horrek, Euskararen iraupenarentzat, hanitz erran nahi lukela ; — *bigarrenekoa*, eskola nausi edo irakasleek, frantses mintzairaren irakasteko, bereri zaizko ten urhats hoberenez hautu egin dezaketela, beraz frantsesaren irakasteko laguntza hoberenentarik bat bezala, Euskararen eskolarat sararaztea beren eskuan dutela ; *hirugarrena*, dela semenerioko, dela eskola chumeetako ikhasleeri gogoaren ontzeko, gure *Laguntasuna*, urthetik urtherako sari baten ematerat lakoela : hala nola, semenarioko ikhasle hoberen bati osorik, edo hoberen zembeiti zathitzeko, gutiagorik gabe, *ehun libera* ; eta eskoletako haur ikhasle hoberen zembeiti, gutiagorik gabe, *ehun eta berrogoita hamar libera*.

Hori guziari darraikola, hitzartzen da, Buru-Lehenaren erranetik eta bilkhura guziaren nahitik, urtheko *bilzar buruzagiak* eta *buru-lehen goretsizkoak* batetarat ezarriz, moldatzen dela *Bilkhura* edo *Kontseilu* berezi bat, Kontseilarieri bereri zaiote-

nean eta zaioten tokietarat bilduz, irakaspen baitezpadako horren ahalik hobekiena bururatzten laguntzeko, eta bertze urhats baitezpadakoeri beren *hots* ahalik hoberenaren emateko.

Orduan zuketan aldi, hamar bat ehede berrik, bilkuran aipatuak eta eztabadakuak izateko. Egin ahal ez den gauza, aintzinagoko ezbaiek sobrache hedadura hartu dutelakotz.

Gehiagokorik gabe, berritzen dire beraz, Erregelamenduaren arabera, urtheho bilzar-buruzagiak, eta izendatzen :

Jaun Etienne Decrept.	Buru lehen,
Don J.-B ^{te} de Larreta	} Buru bigarren,
Jaun Jean Sagaspe.	
« Jean Claude Salaberry	} Buru direnekin jartzaile,
« Jean Errecart	
Martin Landerreche.	Iskribari buru,
J.-B ^{te} Diriar.	Ilar-emanaren buru.

Hitzartzen da azkenekotz, dathorren urtheho bil-aldia Guetharian eginen dela Agorrilaren 15^{kite} buruillaren 30^{erat} artean. Eguerditik oren erdian, sartzan dire, zahar eta berri, bilzarlagunak, Jaun *Frédéric de S^t Jayme*, kontseilari-jeneral, bilzarlagunaren Trinketerat : oihaleria distirantek, eta larrazkeneko aldaska ferdarats eta lorek, barnez ederresten duten trinket ikusten den handienerat.

Emana zen mahaina, buru batetik, bertze buru alderat, bilzarlagunentzat ; buru buruan, bertzearekiu erdiz erdi eskuaira, urtheho buruzagientzat. Eta han, oren pare batez gozaturik, ziote-nak baziren, bildu ez ziren lagun batez edo bertzez orhoituz :

« Han ez zen deus mentsik,
Maitia, zu baizik. »

Izaiterainokoan ezarria, pollit eta chothil, urhe kolore, euskal-edari « *Izarra* », batbederaren aintzinean dirdiratzan zagoena.

Izar chehe hoikien emaitza, larriagoko eskaintza bati buruz abiatua zen. Hurbildu zen ezik bestaren moldatzailea, *Jaun Fr. de S^t Jayme*, bilzar buruzagietarat, erranez : « Eskaintzerat dohatzue emaitza bat, gogoetatze beharrik gabe, nik uste, onhartuko duzuen. » Chutitu zen, harekin bateau, *Jaun Grattau*, euskal-izarraren berritzailea, zioelarik : « Erreberritu dut, Jau-nak, *euskal-izar* maite duzuen. Izarrak ematen darot urhez ichuria. Nik ere eman nahi diot, Euskal-Herriaren mami den Eus-

kalzaleen-Bilzarrari, *izar eta urhe*, mila liberarena : urhetan eta edaritan erdizka. » Esku zarta luzek ihardesten diote.

Gero zen, bihotzeko bertze bide, beharriaren aldi. Aditu behar ziren, *Jaun G. Cazenave*, hazparrandar, Parisko operan gorako kantari lehen dena, bai eta *Jaun Delpani*, Parisen aphaleko lehenetarik atheratua, aurtengorik *Monaco* aiphaturat eremana : bata eta bertzea, egun hortako Donaphaleurat ekharriak.

Hoikien urhatsari *sar-iria* zabaldu zioen J. B^e Diriar, jaun notari, egitekoetan bezain, musikan entzunak, bere *Schola Amicuztar*, mehe-lodi (mélodie) guzietan, choragarriki derabilkaneekin.

Schola Amicuztar -ra, zohakon bezala, esku-zarta ederrez goretsi delarik, agertzen da *Cazenave*, ez arrotz baten balde, itchura hotz batekin, bainan bilkhura guziari herritar eta adiskide baten arraizia erakutsiz. Kantatzen du lehenik « *Guernicaco arbola* », Euskaldun libertatearen kanta, bilkhurak chutik aditzen duena; gero « *Nere etchea* », gure menditarren atseginak aiphu dituen; bai eta bertze kantarik ere, berritz eta berritz galdetua izaturik. Eta kantaria, gora ematen hasirik, gorago zohanean, eta guziek ongi zakitena, gorago orainoheltzeko zuenean, hatsik gabe zagoen bilkhura, hel ez dadien beldurrez. Bainan nola arranoa, hegastin errege, harroka gorenetik airatuz, hedoez gorago, gorago eta ederkiago, hegal geldi eta zabalez, zeru gainean harabunakatzen, hala gure kantariak, goreneko bere itzulikak, bulbar bethez zerabilzkan, eta azken goren gorenekoa ozenki eta gozoki jorik ichiltzerat zohalarik, airea bururatzerat utzi gabe bilkhurak har zezaken, eta kantaria, ezku zarta ezin ichilduzkok gorets zezaketen.

Delpani bere aldiz aphaletik, duphatik bezala, Parisko botheretsuenetnrik atheratua, ai ! zerkhantaria ! Begithartez ilhuna, gorphutz bethekoa, zohitzerat emana, delarik gizon ederra, arrotz bezala arraiziarik gabe, aintzinerat agertzen da. Kaatatzen hasiz geroz, gorago du kopeta, eta artetan phindarrak badariozko begietarik.

Hurbildik dakusanak, dio bere gogoarekin : Gauza ilhuneri, auhendarriari, laztura bihotzera deramateneri khantatzeko, zer aingeru larderiazkoa, ezpatalaria, arkanjelu ihortziria derabilkana ! Haren hoz apha botheretsu lodia, lodi bezain gozoa, ez bide da aditzaileen beharrietarik bi zortziz ezeztatuko ! Esku zartak luzez eta bihotzez ematen zaizko, irabazia zuenbezala.

Bilkhurak bazakien, bi pleteari gazte, biak Tolosarrak, bata

kantari eta bertzea musikari, ager daitezkenak bagintuela. Agertu ere badire, othoituak izaturik, Parisko bi h»utetsien ondotik : *don Jose Eizaguirre* eta *don Isaac Lopez de Mendizabal*. Hain dire biak eder atheratu, gorako kanta-aire ederretan, non *Jaun Delpani*, Parisko mail eta gorabehera guziaren berri dakienak baitzioen, baldin eta nahi balire Pariserat aldaratu, ehun milakak, eder eta gora meta letzaketela.

Hitz batez gauzen bururatzeko, guziek dakitena da, ez zela Euskalzaleen Bilzarra oraidinokoan, hoinbertzetarainoko distiraduretan aurkhitu. Eta urhats hoin ikusgarrien gastuak hain dire moldatu ara antzedenez, non, ez baita bilzar-dirua ardit batez ere behartu.

Hori du zinez ongi begietarat eman Donaphaleuko Egunkariak, urriaren 6^{eko} bere ager-aldian. Huna haren erranak hitzez hitz :

« Iragan larumbateko arrats-aldea, hain eder izatu dena, ez zaio Bilzarrari deus ere gusta. Bestarat sarthu direnek eman dutenetik, eskaini zaizkote :

1° Zilhargin lanez moldaturikako gauza ikusgarritarik, *Jaun Delpani eta Jaun Cazenave* kantariari ;

2° Bazkari on bat *Schola Amicuztar* -eko 22 gazte laguneri ;

3° Ikustate gisako bat, athe zainari, mahain zerbitzariari eta lan zerbeitetan eskua sarthu duten guzieren.

Erran gabea delarik, dohain ikusgarrien ematerat eta ikustate gisakoen egiterat heldu gabe bilkhura aintzineko eta aphauru aintzineko gauzen abiadurak, Jaun Cazenave-rentzateko suthorga, Egunkarietako eta Moldiztegiko gastuak, eta zer bai eta zer ez, aintzinadanik pagatuak zirela.

Hitz batez gastu guzien asetzekoa, hain da urhats onez ethorri, non ez baita Bilzar-dirua, ardit batez ere gutitu, ardit baten bilzar diruari khentzerik, ez baitzaio bati ere gogorat ethorri. »

Guziaren buru: eta guziaren bidez :

Bizi bedi Euskara !

Bizi Euskalzaleen-Bilzarra !

Bizi Donaphaleuko hiria !

Bilzar-Iskribaria.

Martin LANDERRECHE, apheza,
Espeletan, Urriaren 20^{can}
1912 garreanean.